

# AURKEZPENA

DOI: 10.1387/lan-harremanak.15385

*Lan Harremanak* aldizkariaren ale honek, Lan Harremanen eta Lan Zientzien Unibertsitate Ikastegien Elkarteko II Batzarrean (Bilbo, 2015-06-18/19) aurkeztutako ponentzietako eta komunikazioetako batzuk argitaratzen ditu (besteak TRABAJO aldizkariko hurrengo alean argitaratuko dituzte). Hori dela eta, adierazi nahi dugu zenbaki honetan argitaratzen diren artikuluko guztiek ez dituztela gure aldizkariaren ohiko estilo arauak betetzen.

Publikazioari dagokionez, lehenik eta behin ponentziak topatuko dituzue eta ondoren komunikazioak, azken hauek aurkeztutako gai orokorraren arabera bilduta eta aurkezpen ordenari jarraituz.